

2012an, 44 GIB infekzio berri egon ziren 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean

Mutilen GIB infekzio tasa neskena halako hiru da


[Gazteen Euskal Behatokiak](#) Eusko Jaurlaritzako [Hiesaren Prebentzio eta Kontrolaren Planak](#) GIBaren infekzio berriei buruz emandako datuak aurkezten ditu.

2007tik aurrera Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak GIBari buruzko datu epidemiologikoak –infekzioa diagnostikatuta duten lagunen kopuruaren datuak– ditu. Datu horien arabera, GIBaren 161 diagnostiko berri erregistratu ziren EAEn, 2012n, infekzio berri horien % 82 gizonei dagozkie. Kasu guztien artean % 49tan transmizio-bidea, homo/bisexualak izatea izan da; % 6tan, aldiz, drogak xiringa bidez hartzea izan da.

2012n infektatutako 161 lagunetatik, 44k 15 eta 29 urte bitarteko adina dute. Horrek esan nahi du infekzio berrien % 27 gazteen artean gertatu direla. Gazteen artean ere infekzio berrien gehiengoa mutilen artean antzematen dira (28 lagun, guztien % 68).

GIB infekzio berrien tasa, gazteen artean, 1,42 da, adin-talde bereko 10 000 laguneko. Tasa hori mutilen artean 2,14 da; neskeen artean, aldiz, 0,66.

Azkenik, GIB infekzio berrien joerak ez du norabide argia azken hamar urteetan. Izan ere, 2006ko 30 kasu eta 2009ko 53 kasu artean dabil eta.



[Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistiketan](#) osasunari eskaintzen zaion atalean, GIB infekzio berriei dagozkien datuak aurki daitezke.

Jarrai gaitzazue gizarte-sareetan!

